



AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER
for Social and Political Studies

**Etorkizuneko Liderrak prestatzeko
programa**
Giza Garapen Iraunkorrerako euskal eredia
2019/2020 ikasturtea





1. Prestakuntza-programaren aurkezpena eta helburuak

Aurkezpena

Agirre Lehendakaria Center (ALC) egoitza Euskal Herriko Unibertsitatean duen ikerkuntza sozial eta politikoen zentroa da. Zentroa Agirre Lehendakaria Fundazioak bultzatu zuen, New Yorkeko Columbia eta New Jerseyko Setton Halle unibertsitate ipar amerikarrekin elkarlanean. Bere bokazio nagusia Euskadik bizi izandako eraldaketa sozial eta ekonomiko sakona aztertzea da, hau da, 80ko hamarkadaren hasieran bizi izandako krisi ekonomiko sakonaren eta indarkeriaren egoeratik, gaur egun Giza Garapen Iraunkorraren arloan adierazle aurreratuak erakusten dituen egoerara igaro izana.

Orain arte lortutakoa oso garrantzitsua izan da, baina ALC jakitun da euskal gizartearentzat datozen urteotan zer nolako erronkak planteatzen diren. Krisi ekonomikoak, industria iraultza berriak, gizarte ezberdintasuna areagotzera daramaten joerek eta nazioarte mailako aldaketa politiko sakonek orain arte ezagutu dugun ereduaren aldaketa adierazten dute. Euskadi ez dago horretatik guztitik kanpo. Egokitzeke gai izatea eta gizarte kohesionatua bideragarri bihurtuko duen etorkizuneko proiektu bat sustatzeko gai izatea funtsezkoa da bizirik irauteko.

ALCk bere ekarpena egin nahi dio zeregin kolektibo honi. Horretarako, zera proposatu nahi du: iraganetik ikastea, balioan jartzea alderdirik positiboena eta kritikotasunez aztertzea hobetu beharreko alderdiak etorkizunerantz proiektatzeko.

ALCk bere nazioarteko bazkideekin elkarlanean egindako ikerkuntzek egiaztatu dute lortutakoa ez zela izan soilik ongi planteatu eta gauzatutako hainbat esku-hartzeren emaitza, baizik eta baita berezko balio-sistema berezi baten emaitza ere, zenbait erabaki antizikliko hartzea ahalbidetu zuena herri honen historiako garairik zailenetako batean. ALCk prozesu hau euskal eraldaketa-prozesuaren dimentsio kultural gisa ulertzen du.

Erronka handiei egin behar diegu aurre eta, gainditzeko, esperientzia eta ezagutza dugu. Hau ezin da bihurtu besterena ez den zerbait. Horregatik, ALCren uste sendoa izan da, duela lau urte pasatxo bere ibilbideari ekin zionetik, euskal gizarte osoaren eskura jartzea ideia, gogoeta eta ikerkuntza multzo hau. ALCren bokazioa ezagutza hau partekatzea eta euskal gizartearen giza garapen iraunkorrari laguntzea da.

Erronka hauek gainditzea lortzea ondorengo belaunaldiak heldu beharreko zeregina izango da. Euskadin profesional eta aditu handiak daude arlo ezberdinetan, esate baterako, ekonomia eta lehiakortasuna, berdintasuna eta inklusio soziala, giza eskubideak, ingurumenaren iraunkortasuna, kudeaketa publikoa eta pribatua edota herritar partaidetza. Balio ikaragarriko ezagutza dute. Gurea bezalako herrialde batean, natura baliabide handirik ez duena, ezagutza da gure aberastasun handia.



Horregatik, ezagutza hedatzeko eta erantzukizun garrantzitsuak hartuko dituen pertsonen hurrengo belaunaldiari laguntzeko helburu bikoitzarekin, ALCK hirugarren "Etorkizuneko liderrak prestatzeko programa" aurkeztu nahi du. Esperientzia eta ezagutza duten pertsonak etorkizuneari herrialdeari gauza handiak ekartzeko ahalmena duten gazteekin konektatuko ditu: orainaren eta etorkizunaren arteko hari gidaria izango da.

Prestakuntza-programa hau 2019/2020 ikasturtean egingo da.

Helburu nagusiak

- Euskal eraldaketaren ereduari buruz lortutako ezagutza partekatatu.
- Etorkizuneko ahalmen handiko gazteen prestakuntza osatu.
- Euskal gizartearen etorkizuneko erronka handietan kolaboratu.

Nori dago zuzendua?

Prestakuntza-programa hau 18 eta 30 urte arteko 20 pertsonari dago zuzendua, ekimen publiko, pribatu edota sozialekin konprometituta daudenak, edota esparru publiko, pribatu, politiko edo asoziatiboan proiektio handikoak direnak.

Euskal Herrian bizi diren edota euskal diasporatik datozen pertsona gazteak nahi dira.

Gutxieneko baldintzak

- Euskal gizartearen giza garapen iraunkorrarekiko bokazioa eta konpromisoa.
- Ahoz eta idatziz komunikatzeko gaitasuna, bai euskaraz eta bai gazteleraz.
- Idatzizko eta ahozko ulermena ingelesez.

Hizkuntza

Prestakuntza-programa euskaraz, gazteleraz eta ingelesez emango da.

Sarrera eta matrikula

Interesaturako pertsona guztiek bere hautagaitza uztailaren 19tik irailaren 9ra aurkeztu ahal izango dute. Biografia labur bat bidali beharko dute, eta prestakuntza-programa honetan parte hartzeko duten interesa azalduko dute gutun bidez, itxaso@agirrecenter.eus helbidera. Irailaren 27an jakinaraziko da zein pertsona izan diren hautatuak eta programa urriaren 11ean, ostirala, hasiko da.

ALCK genero-berdintasuna lehenetsiko du parte-hartzaileen artean.



Zer konpromiso hartuko dute parte hartzen duten pertsonak?

Prestakuntza-programan parte hartu izanaren ziurtagiria jasotzeko, ezinbestekoa izango da dauden 10 saioetatik gutxienez 8ra joatea. Gainera, amaitzean, eta asistentzia bermatu dela, parte-hartzaile bakoitzak ikasturte amaierako lan bat entregatu beharko du ALC-ek proposatutako markoaren barnean eta jorratutako gaiekin lotura izango duena. Kurtsoa hasi bezain pronto lan honen inguruko zehaztapen guztiak emango dira.

Prezioa

Prestakuntza-programa doan da. Trukean, parte-hartzaileek ikasturte amaierako lanen erabilera- eskubideak lagako dituzte, ALCren web orrian argitaratzeko.

Akreditazioa

Parte-hartzaile guztiak programan parte hartu izanaren EHUren akreditazioa jasoko dute, horretarako beharrekoaz diren tasak ordaindu ostean.

Ordutegia eta egutegia

Saioak hilean behin izango dira, ostiraletan, arratsaldeko 4etatik 8etara Bizkaia Aretoan (Bilbo).

2. Prestakuntza-programaren edukia

Egutegia

Urriak 11
Azaroak 15
Abenduak 13
Urtarrilak 17
Otsailak 21
Martxoak 20
Apirilak 4
Maiatzak 8
Ekainak 5
Uztailak 3

Gaiak

Euskal Kasua.
Euskal Kontzertu Ekonomikoa.



Berrikuntza eta zientzia Europako herririk zaharrenean.
Euskal eredia enpresetan.
Kultura eta euskera.
Genero berdintasuna.
Garapen Jasangarriaren Helburuak Euskal Herrian.
Giza eskubideak eta Elkarkidetzak.

Irakasleak

Juan Jose Ibarretxe. Lehendakari ohia eta Agirre Lehendakaria Center-en zuzendaria
Pedro Miguel Etxenike. Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna eta Donostia International Physics Center-eko presidentea.
Sabino Arrieta. Sidenor enpresako presidente ohia.
Gillermo Dorronsoro. Deusto Business School-eko dekanu ohia eta Ibermatikako ipar zonaldeko zuzendaria.
Alexander Boto. Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria.
Txabi Anuzita. Unesco Etxean Harreman Instituzionalerako arduraduna.
Miren Azkarate. Unibertsitate irakaslea eta euskaltzaina.
Itziar Idiazabal. Unibertsitate irakaslea eta psikolinguista.
Izaskun Landaia. Emakunde-ko zuzendaria.
Javier Sotil. Mondragon Korporazioko presidente ohia.
Jonan Fernandez. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren idazkari nagusia.